

## **6. Bezeroekiko harremanak:**

Harreman pertsonalak izango dira, bai telefono, e-mail edo aurrez aurrekoak, hau, ersoteko momentuan izango da batez ere. Erabiltzaileek, hau da, hiritarrek arazo bat badaukate erabiltzeko momentuan, panelean ohizko galderen erantzunak ikusteko aukera izango dute, telefonoa eta e-mailarekin batera, galderak zehatzagoak izan daitezkeelako.

Arazoak garrantzitsuagoak badira, giltzarrapoa edo panela apurtu badira, edo hauen funtzionamendua ez bada zuzena, gure enpresara deitzeko aukera dago, eta guk langile bat bidaliko dugu arazoa ikustera eta ahal bada, konpontzera.

Web gune bat ere izango genuke, baina honen funtzioa informatiboagoa izango litzateke, publizitatea egiteko ere erabiliko genukeen moduan. Web gunean telefonoa eta e-maila agertuko lirateke, bezero potentzial batek ikusiko balu, gurekin kontaktuan jartzeko era erraz bat eduki dezan.

Gure kasuan autoserbitzua ez litzateke posible izango, panela erabiltzeko ordua kontuan izaten ez bada, hiritarrak ez direlako bezero zuzenak.